# GEOTURISMOKO IRTEERA GIDATUAK
## *VISITAS GUIADAS DE GEOTURISMO*

DEBA-MUTRIKU-ZUMAIA
FLYSCH & KARST




## ONGI ETORRI
## BIENVENIDOS/AS

**EUSKAL KOSTALDEKO UNESCOREN MUNDUKO GEOPARKEA liburu moduko lurralde bat da, gure planetaren eta gizakion historiaren hainbat kapitulu gordeak dituena. Bidaia zoragarriak egiteko hamaika aukera eskaintzen digu: denbora geologikoan zehar eta milaka urteko gure herriko kulturan, hizkuntzan eta tradizioan aurkikuntzazko bidaiak egiteko abagunea, hain zuzen.**

**Euskal Kostaldeko Geoparkea Mutriku, Deba eta Zumaiako udalerriek osatzen dute. 2010az geroztik, Europako eta Munduko Geoparkeen Sareko kide eta 2015etik Unescoren Munduko Geoparke.**

*EL GEOPARQUE MUNDIAL UNESCO DE LA COSTA VASCA, un territorio que atesora distintos capítulos de la historia del planeta y el ser humano, nos brinda un auténtico viaje para descubrir el tiempo geológico y la cultura, la lengua y tradición de un pueblo milenario.*

*El Geoparque de la Costa Vasca está conformado por los municipios de Mutriku, Deba y Zumaia. Desde 2010 es miembro de la Red Europea y Global de Geoparques y desde 2015 Geoparque Mundial Unesco.*

**geoparkea.eus**






## GEORUTAK
## GEORUTAS

## GEOPARKEA OINEZ
## *EL GEOPARQUE A PIE*

**Flysch & Karst**







**DESKARGATU GEOIBILBIDEAK MUGIKORREAN**
*DESCÁRGATE LAS GEORUTAS EN TU MÓVIL*

EUSKARA | CASTELLANO | ENGLISH

## GOGORATU: "ez utzi arrastorik"
## *RECUERDA: "no dejes rastro"*



01 Planifikatu eta prestatu irteera xehetasun handiz
02 Ibili seinalatutako bidezidorretatik, bidetik atera gabe
03 Ahalik eta hondakin gutxien sortu eta behar den tokian utzi
04 Utzi ingurua aurkitu duzun bezala, txukunago bada hobe
05 Basabizitza errespetatu, eraginik sortu gabe
06 Sua arreta handiz eta baimendutako tokietan soilik
07 Kontuan izan baserritarrak
08 Izan atsegina gainontzeko bisitariekin
09 Bete naturaguneetako arauak
10 Zure maskota zure ardura da

*01 Planifica y prepara tu salida al detalle*
*02 Camina siempre por los senderos señalados, sin abandonarlos*
*03 Reduce tus residuos y gestiónalos de forma adecuada*
*04 Deja todo tal y como lo has encontrado, a poder ser mejor*
*05 Respeta la vida silvestre y no influyas en ella.*
*06 Presta mucha atención al fuego*
*07 Ten consideración con quien vive del caserío*
*08 Se agradable con el resto de visitantes*
*09 Sigue las normas de uso de los espacios naturales*
*10 Vigila lo que hace tu mascota*

## ZERBITZU TURISTIKOAK
## *SERVICIOS TURÍSTICOS*

### MUSEOAK *MUSEOS*

**Algorri.** Juan Belmonte, 21. 20750 Zumaia
T. 943 143 100 | info@algorri.eus | www.algorri.eus

**Ignacio Zuloaga Kultur Gunea** / Espacio Cultura Ignacio Zuloaga. Santiago Auzoa, 3, 20750 Zumaia
T. 677 078 445 | info@espaciozuloaga.com | www.espaciozuloaga.com

**Nautilus.** Jose Antonio Ezeiza, 3. 20830 Mutriku
T. 943 603 259 · 943 603 378 | nautilus@mutriku.eus | www.mutriku.eus

**Lastur.** San Nikolas plaza. 20829 Deba
T. 943 199 090 | info@albergueturisticolastur.eus | www.deba.eus

**Ekainberri.** Portale kalea, 1. 20740 Zestoa
T. 943 868 811 | info@ekainberri.eus | www.ekainberri.eus

### TURISMO BULEGOAK *OFICINAS DE TURISMO*

**Deba** (Geopark Corner). Ifar kalea 4, 20820.
T. 943 192 452 | www.deba.eus

**Mutriku.** Txurruka plaza s/n, 20830.
T. 943 603 378 | www.mutriku.eus

**Zumaia.** Kantauri plaza 13, 20750.
T. 943 14 33 96 | www.zumaia.eus

**ERRESERBAK** - *RESERVAS:*
**geoparkea.eus**

## AUKERATU ZURE BISITA
## *ELIGE TU VISITA*

| BISITA *VISITA* | IRAUPENA *DURACIÓN* | IRTEERA *SALIDA* | PREZIOA *PRECIO* |
|---|---|---|---|
| 01 FLYSCHAREN IBILBIDEA / *LA RUTA DEL FLYSCH* | 3:15 | Zumaia | 25€ |
| 02 IRTEERA GEOLOGIKOA / *SALIDA GEOLÓGICA* | 3:15 | Zumaia | 20€ |
| 03 FLYSCHA, BEGIRADA BATEAN / *FLYSCH ESENCIAL* | 1:00 | Zumaia | 17€ |
| 04 NAUTILUS, FLYSCHEKO FOSILAK / *NAUTILUS, LOS FÓSILES DEL FLYSCH* | 2:30 | Mutriku | 15€ |
| 05 ZUMAIA - DEBA - ZUMAIA / *ITSASONTZIZ - EN BARCO* | 1:00 | Zumaia/ Deba | 13€ |
| 06 MAREARTEKO ZABALGUNEA / *RASA MAREAL* | 3:15 | Zumaia/Deba/Mutriku | 15€ |
| 07 FLYSCH BELTZA / *EL FLYSCH NEGRO* | 1:30 | Deba | 8€ |
| 08 GOTIKOAREN ALTXORRA DEBAN / *LA JOYA DEL GÓTICO EN DEBA* | 1:30 | Deba | 8€ |
| 09 MUTRIKU MARINELA / *MUTRIKU MARINERA* | 1:00 | Mutriku | 5€ |
| 10 ARRIETAKUA JAUREGIA / *PALACIO ARRIETAKUA* | 1:30 | Mutriku | 10€ |
| 11 EUSKARAREN ENIGMA / *EL ENIGMA DEL EUSKERA* | 1:30 | Zumaia | 15€ |
| 12 FLYSCHEKO OLAGARROA / *EL PULPO DEL FLYSCH* | 1:30 | Zumaia | 15€ |
| 13 LASTUR FAMILIAN / *LASTUR EN FAMILIA* | 1:30 | Deba | 10€ |
| 14 KARSTEKO ZAPOREAK / *LOS SABORES DEL KARST* | 2:00 | Mutriku | 8€ |
| 15 MUTRIKUKO OLATU PLANTA / *LA PLANTA DE OLAS DE MUTRIKU* | 1:00 | Mutriku | 2€ |

**Geoparkea**
Euskal Kostaldea - Costa Vasca

JARRAI GAITZAZU
SÍGUENOS EN:
#Geoparkea

**ERRESERBAK** - *RESERVAS:*
**geoparkea.eus**

Geoparks | GIPUZKOA TURISMOA | EUSKADI BASQUE COUNTRY | ekoizpen noiz

# 15

## ESPERIENTZIA PAREGABE. AUKERATU ETA GOZATU!

*EXPERIENCIAS ÚNICAS PARA DISFRUTAR. ELIGE LA TUYA!*

Geoparkea
Euskal Kostaldea - Costa Vasca

**ERRESERBAK**
*RESERVAS*



**geoparkea.eus**


INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:
Bisita gidatuen informazio eguneratua kontsultatu eta txartelak erosteko jo www.geoparkea.eus web gunera edo hiru turismo bulegoetara.
Bisitari kopurua mugatua da, eta nahitaezkoa da aurrez erreserba egitea eta ordainketaren bidez konfirmatzea.
Prezio guztiek BEZa barne dute.
Bisiten irisgarritasunari buruzko informazioa eskatu turismo bulegoetan.
Beharrezkoak: jantzi eta oinetako egokiak.

BALDINTZA OROKORRAK ETA KANTZELAZIOAK:
Bisitak eguraldiagatik, itsasoaren egoeragatik edo erreserba faltagatik bertan behera gera daitezke. SMS edo dei baten bitartez jasoko duzu horren berri, eta bisita aldatzeko edo dirua itzultzeko aukera eskainiko zaizu. Ezinbestekoa da, beraz, harremanetarako telefono zenbaki bat ematea, eta zure ardura izango da erraz aurkitzeko moduan egotea.
Irteera puntua aldatu egiten da bisita motaren arabera. Konfirmazio orrian zehazten da irteera puntua zein den, eta norberaren ardura izango da puntu horretara garaiz iristea. Garaiz iristen ez denak bisita egiteko nahiz dirua bueltan jasotzeko eskubidea galduko du. Erreserba aldatu edo baliogabetzeko, gutxienez 48 orduko aurrerapenarekin egin behar da, eskubidea galdu nahi ez bada.
Barkura sartzeko erreserba-ordena jarraitzen da.

*INFORMACIÓN Y RESERVAS:*
*La información actualizada puede ser consultada en la página web www.geoparkea.eus o en las tres oficinas de turismo. Los tickets se adquieren con antelación a través de esos medios.*
*Las plazas son limitadas, es necesario hacer la reserva y confirmarla con el pago para tener la plaza asegurada.*
*Los precios incluyen el IVA.*
*Consultar la accesibilidad de las visitas en las oficinas de turismo.*
*Equipo necesario: ropa y calzado adecuado.*

*CONDICIONES GENERALES Y CANCELACIONES:*
*Algunas visitas pueden ser modificadas/suspendidas a causa del estado de la mar, de la climatología o por falta de participantes, y se notificará mediante llamada telefónica o SMS. Se dará la opción de cambio o devolución del dinero. Por ello, es obligatorio facilitar un número de teléfono al realizar la reserva, y será responsabilidad del/a cliente/a estar localizable.*
*El punto de salida varía según el tipo de visita. En la hoja de confirmación se detalla el punto de salida correspondiente, por lo que será responsabilidad de los y las visitantes llegar a tiempo a ese punto. Cualquier anulación o cambio de reserva, deberá ser notificado con 48 horas de antelación para que no cause la pérdida de los derechos. En caso de no hacerlo, perderá el derecho a realizar la visita guiada o a la devolución del importe.*
*El acceso al barco se hará siguiendo el orden de reserva.*


## 01 FLYSCHAREN IBILBIDEA
*LA RUTA DEL FLYSCH*



**Flyscha, portuak eta kostako tradizioa itsasontziz**
*En barco por el flysch, los puertos y la tradición marinera*

Joan-etorriko nabigazioa egingo dugu Zumaia eta Mutriku artean, Debatik pasatuz, Geoparkeko kosta ikuspegi geologikotik eta kulturaletik ezagutzeko. Txangoan zehar, flyschari buruzko azalpenak emango dizkigute, baita eskualdean oso garrantzitsuak izan ziren itsasoari lotutako bizimodu eta ohiturei buruzkoak ere. Mutrikuko portua eta herrigune historikoa- Monumentu Multzo izendatua- gure kabuz bisitatzeko, ordubeteko tartea izango dugu.

*Navegaremos de Zumaia a Mutriku pasando por Deba, y vuelta, para conocer la costa del Geoparque desde el punto de vista geológico y cultural. A lo largo del recorrido recibiremos explicaciones sobre los principales rasgos del flysch y sobre las formas de vida y tradiciones vinculadas al mar que antaño fueron más importantes en esta tierra. El visitante tendrá aproximadamente una hora de tiempo libre para visitar el puerto y el casco histórico de Mutriku, declarado Conjunto Monumental.*

Iraupena / *Duracion:* **3h 15´**
**Irteera: Txomin Agirre Kaia, Zumaia**
*Salida: muelle Txomin Agirre, Zumaia*
**Prezioa: 25€ /- 12 urte: 15€** / *Precio: 25€ / -12 años: 15€*

## 02 IRTEERA GEOLOGIKOA
*SALIDA GEOLÓGICA*



**Geoparkeko santutegi geologiko nagusia, oinez eta itsasontziz**
*El gran santuario geológico del Geoparque, a pie y en barco*

Munduko geologia-gune nagusietako baten sekretuak ezagutuko ditugu irteera honetan. Gidari espezializatu batek harkaitzetan jasota gelditu diren gertakariak ulertzen lagunduko digu, hala nola, dinosauroen desagerpena eta aldaketa klimatikoak. Algorri interpretazio zentroan hasi, itsaslabarretan oinez ibili eta, azkenik, itsasotik labarren ikusmira ederrenaz gozatuko dugu.

*En esta visita, descubriremos los secretos de uno de los grandes santuarios geológicos del planeta. De la mano de un/a guía especializado/a, reconoceremos en las rocas eventos como la gran extinción de los dinosaurios o los cambios climáticos. La visita comienza en el centro Algorri, recorre los acantilados a pie y termina con un paseo en barco para disfrutar de su perspectiva más impresionante.*

Iraupena / *Duracion:* **3h 15´**
**Irteera Algorri Interpretazio zentroa, Zumaia**
*Salida: Centro de Interpretación Algorri, Zumaia.*
**Prezioa: 20 €** / *Precio: 20€*
**Gutxieneko adina: 12 urte** / *Edad mínima: 12 años*

## 03 FLYSCHA, BEGIRADA BATEAN
*FLYSCH ESENCIAL*



**Itsas ibilaldia, Lurraren liburu harrigarria ezagutzeko**
*Paseo en barco para descubrir el gran libro de la Tierra*

Zumaiatik Sakonetara joan-etorria itsasontziz egingo dugu, Deba eta Zumaia arteko Biotopo Babestuan barrena. Flyscharen labar ikusgarriak ezagutuko ditugu, 50 milioi urtetik gorako historia daukatenak; baita 100 metroko lurjausiak itsasertzean, kala ezkutuak eta Europan dagoen marearteko zabalgune handienetako bat ere.

*Visita de ida y vuelta en barco por el Biotopo Protegido Deba-Zumaia hasta Sakoneta. Conoceremos los espectaculares acantilados del flysch, con una historia superior a 50 millones de años, grandes desprendimientos de más de 100 metros de altura, calas recónditas y una de las mayores rasas mareales de Europa.*

Iraupena / *Duracion:* **1h 00´**
**Irteera: Txomin Agirre Kaia, Zumaia**
*Salida: muelle Txomin Agirre, Zumaia*
**Prezioa: 17€ / - 12 urte: 10€** / *Precio: 17€ / -12 años: 10€*

## 04 NAUTILUS, FLYSCHEKO FOSILAK
*NAUTILUS, LOS FÓSILES DEL FLYSCH*



**Fosil handiak eta labarrak itsasotik**
*Grandes fósiles y acantilados salvajes desde el mar*

Mutrikun Nautilus Ikasgune Geologikoa bisitatu eta amonite-fosilen bilduma bikainaz gozatuko dugu. Ondoren, barkuz Saturraran hondartzara joango gara, bertan kostaldeko flysch beltza agerian baitago. Zazpi hondartza gune ezkutuan hainbat sekretu ezagutzeko aukera paregabea izango dugu.

*En Mutriku visitaremos el Centro Nautilus con su interesante colección de amonites y después partiremos en barco hacia la playa de Saturraran, el lugar donde aflora el característico flysch negro de esta costa. Ante nosotros se abre la zona de Siete Playas, un lugar escondido donde dominan las fuerzas de la naturaleza y que guarda muchos secretos que contar.*

Iraupena / *Duracion:* **2h 30´**
**Irteera: Nautilus ikasgune geologikoa, Mutriku**
*Salida: Centro de interpretación geológica Nautilus, Mutriku*
**Prezioa: 15€ / - 12 urte: 8€** / *Precio: 15€ / -12 años: 8€*

## 05 ZUMAIA-DEBA/DEBA-ZUMAIA
*ITSASONTZIZ - EN BARCO*



**Itsas ibilaldia flyscharen labarretatik**
*Travesía por mar por los acantilados del flysch*

Itsasaldia Zumaian hasi eta Debaraino edo Deban hasi eta Zumaiaraino egin daiteke. Flyscheko labarren edertasuna eta Europako marearteko zabalgune handienetako bat miretsiko dugu. Aukera paregabea da lasaitasun osoz Geoparkeko bi udalerri bisitatzeko. Oharra: irteera puntura itzultzeko garraio publikoa erabili dezakegu.

*Travesía en barco con salida en Zumaia y llegada a Deba, o salida en Deba y llegada a Zumaia. Admiraremos la belleza de los acantilados del flysch, calas recónditas y una de las mayores rasas mareales de Europa. Excelente opción para visitar con tranquilidad dos de los municipios del Geoparque. Nota: podemos utilizar el transporte público para volver al punto de partida.*

Iraupena / *Duracion:* **1h 00´**
**Irteera: Deba edo Zumaia**
*Salida: Deba o Zumaia*
**Prezioa: 13€ /- 12 urte: 8€** / *Precio: 13€ / -12 años: 8€*

## 06 MAREARTEKO ZABALGUNEA
*RASA MAREAL*



**Flyscheko bizitza eta koloreak ezagutzen**
*Descubriendo la vida y los colores del flysch*

Biologiari erreparatzen dion bisita harrigarri hau itsasbeheran soilik egin daiteke. Gida baten laguntzaz, labarren oinarrian azaltzen den plataforma harritsua eta bertako ekosistema aberatsa ezagutuko ditugu: itsas izar, olagarro, itsas erbi eta bestelakoekin, kolore eta forma anitzeko bizitza zabalduko zaigu begien aurrean.

*Sorprendente visita de carácter biológico que se realiza únicamente con marea muy baja. De la mano de un/a guía especializado/a, descubriremos la enorme variedad de especies que habitan en esta plataforma rocosa que aflora al pie de los acantilados. Allí habitan estrellas de mar, pulpos, pepinos, liebres; todo un mundo de vida y color a nuestro alcance.*

Iraupena / *Duracion:* **3h 15´**
**Irteera: hiru herrietan (ikusi egutegia)/**
*Salida: en los tres municipios (consultar calendario)*
**Prezioa: 15€ /- 12 urte: 8€** / *Precio: 15€ / -12 años: 8€*
**Zailtasun maila: Ertaina-handia** / *Nivel de dificultad: Medio-Alto.*
**Gutxieneko adina: 10 urte** / *Edad mínima: 10 años*

## 07 FLYSCH BELTZA
*EL FLYSCH NEGRO*



**Geoparkeko itsas hondoak eta flysch zaharrena**
*Los fondos marinos y el flysch más antiguo del Geoparque*

Ibilaldi harrigarria Geoparkeko itsas hondo zaharrenetan barrena. Debako hondartza bikainean eta itsas pasealekuan egiten den oinezko bisita honetan flysch beltzaren sekretuak ezagutuko ditugu. Duela 100 milioi urteko itsaspeko paisaia zoragarria bistaratuko dugu: koralezko arrezife handiak, itsaspeko abaniko sakonak, lurrikarak eta naturaren harribitxi bereziak, Debako septariak, alegia.

*Un paseo sorprendente por los fondos marinos más antiguos del Geoparque. Visita a pie por la extraordinaria playa y paseo marítimo de Deba que nos permitirá conocer los secretos del flysch negro. Descubriremos el paisaje submarino de hace 100 millones de años, formado por grandes arrecifes de coral, abanicos submarinos profundos, terremotos y pequeños caprichos naturales como las conocidas Septarias de Deba.*

Iraupena / *Duracion:* **1h 30´**
**Irteera: Debako turismo bulegoa**
*Salida: Oficina de turismo de Deba*
**Prezioa: 8€ /- 12 urte: 5€** / *Precio: 8€ / -12 años: 5€*

## 08 GOTIKOAREN ALTXORRA DEBAN
*LA JOYA DEL GÓTICO EN DEBA*



**Bisitatu Santa Maria eliza ikusgarria**
*Visita a la majestuosa iglesia parroquial de Sta. María*

Gipuzkoako elizarik ikusgarrienetakoa da, Debako alde zaharraren erdi-erdian kokatua, eta euskal gotikoaren altxortzat hartzen da. Edozein katedralekin alderatzeko modukoa da, bai dituen tamainarengatik, bai bere ezaugarriengatik eta apaindura aberatsarengatik ere. Bisita honetan, eliz atari polikromatu bikaina eta XVI. mendeko klaustroa, Gipuzkoako zaharrena, miretsiko ditugu.

*Situada en el corazón del casco histórico de Deba, es una de las más majestuosas de Gipuzkoa y está considerada joya del gótico vasco. Sus dimensiones y rica decoración la hacen comparable con cualquier catedral. Durante la visita admiraremos el magnífico pórtico policromado y el claustro, construido en el siglo XVI, el más antiguo de Gipuzkoa.*

Iraupena / *Duracion:* **1h 30´**
**Irteera: Debako turismo bulegoa**
*Salida: Oficina de turismo de Deba*
**Prezioa: 8€ /- 12 urte: 5€** / *Precio: 8€ / -12 años: 5€*

## 09 MUTRIKU MARINELA
*MUTRIKU MARINERA*



**Euskaldunak eta itsasoa, antzinatik datorkigun harreman estua**
*La ancestral relación del pueblo vasco con el mar*

Mutrikuko hirigune historikoa gure kostaldean ondoen mantentzen denetako bat da. Monumentu Multzo izendatu da, interes historiko-artistiko nabarmeneko etxe eta jauregiak gorde baitira. Familia garrantzitsuen eta itsasgizon trebeen ekintza gogoangarrien istorioak ezagutuko ditugu, baina baita portuaren inguruan bizi izan ziren arrantzale anonimoenak eta emakume kementsuenak ere. Herriko kaleetan barrena, euskal kostaldeko herri arrantzaleen historiaren zati bat deskubrituko dugu.

*El casco histórico de Mutriku es uno de los mejor conservados de la Costa Vasca. Declarado Conjunto Monumental, conserva casas y palacios de notable interés histórico-artístico, que rememoran historias de importantes familias, grandes marinos vascos y de anónimos pescadores y enérgicas mujeres que vivieron en torno a su puerto. Recorriendo sus calles, descubriremos parte de la historia de los pueblos marineros de la Costa Vasca.*

Iraupena / *Duracion:* **1h 00´**
**Irteera: Mutrikuko turismo bulegoa**
*Salida: Oficina de turismo de Mutriku*
**Prezioa: 5€ /- 12 urte: 3€** / *Precio: 5€ / -12 años: 3€*

## 10 ARRIETAKUA JAUREGIA
*PALACIO ARRIETAKUA*



**Itsasoari loturiko ondare historikoaren harribitxia**
*Joya del patrimonio histórico y marítimo*

Euskal itsas historian murgil zaitez Antonio de Gaztañeta eta Kosme Damian Txurruka itsasgizonena izandako jauregi honetan barrena (XVIII).
Etxebizitza pribatu hau bisita gidatu hauen bitartez bakarrik ezagutu daiteke.

*Adéntrate en la historia marítima de la Costa Vasca recorriendo este magnífico palacio habitado (S. XVIII), que perteneció a los navegantes Antonio de Gaztañeta y Cosme Damián Churruca. Residencia privada a la que sólo se puede acceder a través de estas visitas guiadas.*

Iraupena / *Duracion:* **1h 30´**
**Irteera: Mutrikuko turismo bulegoa**
*Salida: Oficina de turismo de Mutriku*
**Prezioa: 10€ /- 12 urte: 5€** / *Precio:10€ / -12 años: 5€*
**Gutxieneko adina: 10 urte** / *Edad mínima: 10 años*

## 11 EUSKARAREN ENIGMA
*EL ENIGMA DEL EUSKERA*



**Ezagutu euskararen herria**
*Lo que nunca te habían contado del país del euskera*

Europako kulturarik antzinakoenetakoa ezagutu nahi duzu? Eta gure kontinentean zaharrenetakoa den hizkuntzaren bitxikeria batzuk ezagutu nahi? Zumaiako alde zaharrean egingo dugun bisita gidatu honetan, euskal kulturaren, hizkuntzaren, mitologiaren, kirolaren eta tradizioen alderdirik ezezagunenak deskubrituko ditugu. Gainera, antzinako arrain salmenta aretoa ezagutzeko aukera izango dugu eta benetako elkarte gastronomiko batean pintxo bat dastatuko dugu.

*¿Quieres conocer una de las culturas más ancestrales de Europa? ¿Y aprender a decir las palabras básicas en euskera, una de las lenguas más antiguas del continente? En esta visita guiada por la parte vieja de Zumaia, descubrirás aspectos desconocidos de la cultura, la lengua, la mitología, los deportes y las tradiciones vascas. Además, tendrás la oportunidad de conocer la antiquísima sala de ventas de pescado y de degustar un pintxo en una auténtica sociedad gastronómica.*

Iraupena / *Duracion:* **1h 30´**
**Irteera: Zumaiako turismo bulegoa**
*Salida: Oficina de turismo de Zumaia*
**Prezioa: 15€ /- 12 urte: 10€** / *Precio: 15€ / -12 años: 10€*
**Gutxieneko adina: 8 urte** / *Edad mínima: 8 años*

## 12 FLYSCHEKO OLAGARROA
*EL PULPO DEL FLYSCH*



**Zumaiako protagonista: bai harraldean, bai sukaldean**
*Protagonista de la rasa mareal y la gastronomía en Zumaia*

Geoparkeko kostaldean barrena, flyscheko olagarroa harrapatzeko antzinako arrantza-teknikak eta sukaldaritzako tradizioa ezagutuko ditugu. Izan ere, olagarroa natura-ingurune liluragarri honetako ikur nagusia bilakatu da. Eta, esperientzia ahaztezin honi amaiera biribila emateko, pintxo eder bat eta txakolina dastatuko ditugu.

*Nos adentraremos en la zona costera de Geoparkea para descubrir las ancestrales técnicas de pesca y la tradición culinaria asociada al pulpo del flysch, molusco convertido en emblema de este fascinante entorno natural. Y como broche final a una experiencia inolvidable, saborearemos un buen pintxo y un txakoli.*

Iraupena / *Duracion:* **1h 30´**
**Irteera: Zumaiako turismo bulegoa**
*Salida: Oficina de turismo de Zumaia*
**Prezioa: 15€ /- 12 urte: 10€** / *Precio: 15€ / -12 años: 10€*
**Gutxieneko adina: 8 urte** / *Edad mínima: 8 años*

## 13 LASTUR FAMILIAN
*LASTUR EN FAMILIA*



**Errotak eta taloak familia osoarentzat**
*Molinos y talos para toda la familia*

Gaztetxoak dira abentura honetan protagonistak. Xarma berezia duen Lastur auzoan elkartuko gara, eta errota zaharrean artoa eho ondoren, arto-irinaz taloa egiten ikasi eta txistorrarekin jango dugu. Haurrek zein helduek ongi pasatzeko aukera ezin hobea izango dute.

*Los niños y niñas serán protagonistas de esta aventura. Tras moler el maíz en el antiguo molino de Lastur, disfrutaremos de un divertido taller de talos, donde nos chuparemos los dedos con esta popular torta de maíz acompañada de chistorra. Tanto niño/as como adultos se lo pasarán en grande.*

Iraupena / *Duracion:* **1h 30´**
**Irteera: S. Nikolas plaza, Lastur auzoa, Deba**
*Salida: Plaza S. Nikolas, B° de Lastur, Deba.*
**Prezioa: 10€ /- 12 urte: 5€** / *Precio: 10€ / -12 años: 5€*

## 14 KARSTEKO ZAPOREAK
*LOS SABORES DEL KARST*



**Paseo bat Geoparkeko bihotzetik**
*Un paseo por el corazón del Geoparque*

Uraren higadurak sortu du Olatzeko bailara ezkutua, kareharrizko piramide handien artean. Txangoan Goienetxe euskal baserri tipikoa ezagutuko dugu, artalde bat ikusi, artzai gaztaren prozesua ezagutu eta, amaitzeko, gazta eta txakolina dastatuko ditugu.

*Visitaremos el valle escondido de Olatz, formado por la erosión del agua y situado entre grandes pirámides de roca caliza. En el caserío Goienetxe visitaremos un rebaño de ovejas, conoceremos el proceso de elaboración del queso y disfrutaremos de una degustación acompañada del vino local txakoli.*

Iraupena / *Duracion:* **2h 00´**
**Irteera: San Isidro ermita, Olatz auzoa, Mutriku**
*Salida: Ermita San Isidro, B° de Olatz, Mutriku.*
**Prezioa: 8€ /- 12 urte: 5€** / *Precio: 8€ / -12 años: 5€*

## 15 MUTRIKUKO OLATU PLANTA
*LA PLANTA DE OLAS DE MUTRIKU*



**Itsasoko olatuak energia iturri**
*Las olas del mar como fuente de energia*

Olatuen energia aprobetxatzen duen munduko lehen planta komertziala da Mutrikukoa. Bisita gidatu honetan ikus-entzunezko baten bidez ulertuko dugu, zer-nolako teknologiak erabiltzen diren itsasoaren indarretik energia lortzeko, eta munduan erreferentea den instalazioa gertutik ezagutuko dugu.

*La de Mutriku es la primera central de generación de energía eléctrica mediante el aprovechamiento de la fuerza de olas. En esta visita guiada entenderemos a través de un formato audiovisual, qué tipo de tecnología se utiliza para obtener esta energía y conoceremos de cerca una tecnología que es referencia mundial.*

Iraupena / *Duracion:* **1h 00´**
**Irteera: Mutrikuko portuko igerilekua**
*Salida: Piscina del puerto de Mutriku*
**Prezioa: 2€** / *Precio: 2€*
**Gutxieneko adina: 8 urte** / *Edad mínima: 8 años*